

## **BI MILA ETA HAMABOSTEKO UZTAILAREN SEIAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2015eko uztailaren seian, 20:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretuan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri  
Elixabete Arriaga Calvo  
Aintzane Enzunza Zorrozuza  
Haizea Bengoetxea Andikoetxea  
Gartzen Agirregoitia Abad

Aitziber Ibinarriaga Delgadok hasieran bertaratu ezina azaldu du eta zazpigarren puntuan Batzar Aretora sartu da.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

### **I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO EKAINAREN HAMAHIRUAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

2015eko ekainaren hamahiruko Udalaren eraketaren bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

### **II.- UDALBATZEN ALDIZKAKOTASUNA.**

Udalbatzak, aho batez, bi hilabetero ohiko Udalbatza osatzea erabaki du, astelehenetan hain zuzen ere, arrastiko zazpi eta erdietan.

### **III.- KONTUEN BATZORDE BEREZIAREN ERAKETA.**

Alkate Jaunak Kontuen Batzorde Bereziaren zereginak azaldu ditu eta Korporazioko kide guztiak bokal izendatu ditu. Idazkaria, Korporazioko idazkaria izango da, Carlos Laucirica Careaga eta Mahaiburua Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez.

Gartzen Agirregoitiak, bere ustez, informazio batzordeak sortu behar liratekeela adierazi du, gaiak batera eztabaidatu eta Udalbatzarretan onartu beharreko gaiak hobeto aztertzeko asmoz.

Alkate Jaunak informazio batzarrak egingo dituela zinegotziekin adierazi du, Udalbatzarrerako gaiak aurretiaz aztertuta edukitzeko asmoz, bere asmoa “proposamenak eta adostasunak” lortzea dela adieraziz.

Aintzane, udal kontuei dagokienez, udal kudeaketei buruz informatuta egoteko, norengana jo behar duen galdetu du.

Alkate Jaunak, Alkatearengana jo behar duela adierazi du. Halaber, kultura eta kirolari dagokionez, Kulturako zinegotzia Aitziber Ibinarriaga Delgado dela adierazi du.

### **IV.- ALKATEORDEEN IZENDAPENA.**

Alkate Jaunak Alkateorde Aitzbea Yarto Goiri, Elixabete Arriaga Calvo eta Aitziber Ibinarriaga Delgado zinegotziak izendatu dituela adierazi du, A.F.E.J.A.ren 46 artikuluan adierazitakoaren arabera.

#### **V.- UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEETAN IZENDAPENAK.**

Alkate Jaunak Arrietako Udalaren hurrengo ordezkariak izendatzen ditu ondoren zehazten diren erakundeetan:

- Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea:  
Titularra : Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez.  
Ordezkoa : Elixabete Arriaga Calvo.
  
- “Jata-Ondo” Landa Garapenerako Elkarteak:  
Titularra : Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez.  
Ordezkoa : Aitzbea Yarto Goiri.
  
- Uribe Butroeko Mankomunitatea :  
Titularra : Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez.  
Ordezkoa : Aitzbea Yarto Goiri.

#### **VI.- GORDAILUZAINAREN IZENDAPENA.**

Alkate Jaunak Aitzbea Yarto Goiri izendatu du Korporazioko gordailuzaina.

#### **VII.- FINANTZA ERAKUNDEEN BANKU KONTUETARAKO BAIMENDUTAKO SINADUREN ONARPENA.**

Alkate Jaunak Arrietako Udaleko banku kontuak erabiltzeko baimendutako sinadurak Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez Alkatea eta Carlos Laucirica Careaga idazkaria izaten jarraituko dutela adierazi du.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura bederatzietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.